



# Pil-pilean

TRUKUJAN

Soraluzeko hilabetekaria  
2023ko apirila - 397 alea



## ZALETASUN BEREZIAK

Eskaneatu QRa eta  
deskargatu Soraluzeko  
Herri Programa



[labur.eus/piztu](http://labur.eus/piztu)

ehbildu



# PIL-PILEAN 397

2023ko apirila

Azaleko argazkiaren egilea:  
Oier Larreategi.

## Aurkibidea

- |    |   |   |
|----|---|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Amaia Aldai<br>liburuzaina                        | IRITZIA   |
| 6  | <b>Begira</b> Elkartasun sarea handitzen                              | 3 <b>Neuretik</b> Arrate Gisasola <i>Kontatu didate</i>   |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                              | 16 <b>Gutunak</b> Juliana Carera, Veronica Tello eta Lorea Calles <i>Mesedeetako egitzako lan giroa, Sonia Laskurain Mozorro lehiaketa dela-eta</i> |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> Ramadanaren amaiera                              | 16 <b>Komiki tira</b>   |
| 18 | <b>Erreportajea</b> Aisialdirako zaletasun bitxiak                    | 17 <b>Hausnarketa</b> Baduzu irakurtzeko ohiturarik? Zer irakurtzen duzu?   |
| 24 | <b>Kirola</b> Asier eta Iñakiren omenezko pilota txapelketa eta boxeo | 17 <b>Puntuak</b> Gaizka Azkarate <i>Dena adatzen da</i>  |
| 25 | <b>Kultura</b> Irakurri eta Gozatu                                    |   |
| 28 | <b>Nondik nora</b> Maria Zaret Sancha                                 |   |
| 30 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...      |   |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

**SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Kontatu didate...



ARRATE GISASOLA

**K**ontatu zidan lagun batek, Bidebarrieta 1 kaleko kantoian. Eta kontatu zioten, lagun bati, Gaztañerre eguneko festa giroan. Eta kontatu nion lagun minari, itsas ertzeko olatuen artean. Eta kontatzen dute, eta kontatu zion... Eta askok ez zuten kontatu, beste askok ez dute kontatu, eta ehunka gorputzek ez dute inoiz kontatuko.

Kantatu zuen Nerea Ibarzabalek, Iruñeko plaza handian. Kantura ekarri zituen amets gaizto bilakatu ziren osabaren altzoetakoak; osabaren arnas mantsoarean oroitzapen mingarriari leku eginez, isilik egoteko esan zionaren sekretua lau haizetara aineratuz. Kantatu zuen gutako askoren, larregiren, ahotsetatik. Kontatu zuten, kontatu ez zuten eta kontatuko ez duten ahots, bihotz eta bizipen latzez bustitako ume izandako gorputz erasotuetatik. Txikitan familia askotako gizonak egindakoa eta gorputz askotan bizitakoa, hiru bertso ederretan bildu zituen.

Identifikatuak sentitu ziren asko zuzendu omen zaizkio gerora Nereari, zauri hori plazan kokatu izana eskertuz. Bertsoak entzutean, oroitzapen eta barne korapiloen astinketarekin batera, esker on uholde bat etorri zitzaidan niri ere bat-batean. Eta bertsogintza zentzuz betetzen da horrelakoetan, eta plazak duen funtzioa eta indarra agerian gelditzen dira.

Eta jakin arren, mundua ez dela era horretan aldatzen, botere harremanak eta zapalkuntzak ez direla bertso batez eraisten, zama-aroa, ez dela hola laburtzen. Kontakizun zein kontu-hartze pribatuekin batera, batzuk egun batez plazan ahotsa izan genuen: publikoki, agerian ... Babesean, arnas mantsoko sekretu behartuek sortutako amets gaiztorik ez dago eta. Lotsak, minak, beldurrak nahiz bizi-iraupenari lotutako ahanzturak, denbora tartetxo batean bada ere, ardura zutenen aulkietan kokatu ziren. Eta nik, aulkian deseroso sentitu ziren haiei barkamena eskatzeko inongo beharrik ez nuen sentitu. Nereak bigarren bertsoan aipatutako aitortza beharra eta mendeku nahia barruraino sartuta izan nituen gaztaroko denbora luzeegian. Ala porai!

Kontatu didate, plaza gehiago hartzera goazela, aske bizitzeko, babesean. Deserosotasunak hartu dezala behingoz dagokion lekua!

**KANTURA EKARRI  
ZITUEN AMETSGAIZTO  
BILAKATU ZIREN  
OSABAREN  
ALTZOETAKOAK**

# “Nobela beltza da gehien irakurtzen den generoa”

---

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** EGOITZ UNAMUNO

---

Astelehen arratsaldea da eta giro lasaian bada ere, liburutegian mugimendua dabil: Herrira etorri berriak diren neskatila gaztetxo bi liburuak itzuli eta eroateko asmoz; liburutegiko ordenagailu eramangarriarekin arazoak dituen gizezko heldua laguntza eske; gaur ere udaletzeko akta liburuak kontsultatzera hurreratu den emakumezkoa atzeko mahaian; eskolan hala egokitu eta "asteko motxila liburua" hartzera etorri diren ama-emeak mostradorera; eleberrirak beltzak eta dibulgazioko liburuak bueltatu eta beste batzuk hartzera datozen heldu irakurzaileak ere badatoz tantaka... Denei arreta eskaintzen, Amaia Aldai, liburuazaina. Herritarrek atenditzaarekin batera, Pil-pileanen galderei erantzun die.

## **Pandemiaren aurretik eta ostean igarri duzu aldaketarik liburutegian?**

Bai, handia. Pandemiaren geroztik jende gutxiago dator eta jendeak joera gutxiago du liburutegian patxadaz egoteko. Orain joera da sartu, egin beharrekoak egin eta segituan irtetea. Sumatzen dut, jende helduari kosta egiten zaiola leku itxietan egotea. Ikasle gazteak ari dira lehengo ohiturak berreskuratzen eta lasaiago datoz, baina jende heldua ez.

## **Mailegaten diren liburuen kopurua jeitsi egin da?**

Bai, orokorrean liburu gutxiago mailegaten dira. Iaz, esaterako, guztira, 2258 liburu mailegatu ziren.

## **Genero literarioen aldetik zer da gehien irakurtzen dena?**

Momentu honetan poliziakoak, intrigazkoak dira gehien saltzen direnak, nobela beltza esaten zaion generokoak. Horiek dira gehien irakurtzen direnak eta liburutegian ere horiek dira jende gehien eskatzen dituenak. Mikel Santiago, Ibon Martin... Horrekin batera, modan daude idazlearen bizitzarekin nolabaiteko zerikusia duten lanak.

Pisu handia izaten du liburua ezaguna eta berria izateak, irratian edo telebistan aipatzeak... Horrek

pizten du jakinmina eta idazlea ezaguna izateak ere eragiten du. Irakurle asko datoz esanez irratian edo telebistan hau edo bestea entzun dutela eta irakurtzeko gogoia piztu zaiela.

## **Irakurleen artean zer dira gehiago emakumezkoak ala gizonezkoak?**

Askoz gehiago dira emakumezkoak, adin guztietan. Desoreka sekulakoa da. Emakumeek gehiago eta sarriago irakurtzen dute. Gainera, oro har, emakumeek joera handiagoa dute liburuak irakurri ostean komentatzeko. Askok aipatzen dute liburuak oso lagungarri zaizkiela euren bizitzan. Irakurtzen dituzten liburu motetan ere aldea dago. Emakumezkoek erromantikoak eta bidaien inguruko liburuak irakurtzen dituzte, gizezkoek, berriz, historikoak, eta denek poliziakoak eta intrigazkoak.

## **Mailegaten diren liburuetatik zenbat dira euskarazkoak?**

Iaz mailegatu ziren euskarzko liburuak 724 izan ziren, mailegatu ziren guztien %32a. Azken aldian, euskarzko idazleen artean asko dira emakumezkoak eta gazteak, eta askotan argitaratzen dituzten lanetan badago lotura bat norbere biografiarekin, joera bat jende arruntaren arazoak tratatzeko. Horrek arrakasta du. Gainera idazteko modua oso zuzena eta argia da, horrek laguntzen du.

## **Adibidez?**

Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materialak*, Katixa Agirrerren *Amek ez dute*, Miren Agur Meabe...

## **Zen dira euskaraz gehien irakurtzen diren liburuak?**

Momentu honetan gehien entzuten direnak emakumezkoenak dira, baina Amets Arzallusen *Miñan* ere asko irakurri da, Kepa Iribarren intrigazkoak, Karlos Linazisororen *Bizipoz*, Jon Arretxerenak... Tarteka etortzen dira Atxaga eta Sarrionandiaren libururen baten eske.

Beharbada euskaraz aukera txikiagoa dago dibulgaziazko liburuetan, baina nobeletan asko aurreratu da eta eskaintza zabala dago.





## Elkartasun sarea handitzen

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** UBANE MADERA  
ZANGITU

Handitzen doa Tolarekuan egiten dituzten hari-lan solidarioen sarea. Ukrainarako eta Lesboserako ez ezik, Bergarako Kattalin elkartearendako eta Gurutze Gorriarendako ere ari dira hari-lanak egiten, minbizia duten umeendako zein emakumeendako. "Guk egin, egin eta egin egiten dugu, eta eurek banatu egiten dute", dio Ana Ollak, jostuntza-tailerreko gidarietako batek. Txaro Fernandezekin batera dihardu eguneroko taldea gidatzen. Puntua eginez, ehozirian... denetik egiten dute, konpainia onean eta gustura. Hori bai, laguntza eskertuko luketela ere esan dute, joste-lanak egiteko materiala eskuratzeko. Diotenez, laguntasuna eskatu diote Udalari eta erantzunaren zain daude.







# "Oso gaizki" doa Kooperatiba

Egoera aldatu ezean, saltokia itxi beharra ez dute baztertzen, datu negatiboak pilatzen ari baitzaizkie

Iazko urtean, 2022a galerekin bukatu zuten Soraluze Koopeartiba Elkartearen. Bertako arduradunek esandakoaren arabera, orain arte ere "urte hobek eta txarragoak" eduki izan dituzte, "baina hain txarrak ez". Eta 2023ko lehen lau hilekoa pasatu denean, egoera hobetzen ez dela ikusi dute. "Iazko lehen lau hilabeteak oso baxuak izan ziren, gero apur bat hobetu zen egoera, baina azarotik, Eroski zabaldu zutenetik, salmentak behera eta



Kooperatiba, kanpotik.

behera doaz. Eta berdin segitzen dugu. Horrekin batera, gure gastuak gora doaz (argindarra, soldatak...) eta salmentak behera. Gainera, prezioak asko igo dira eta gure eguneroko bezeroak gero eta nagusiagoak dira. Horrela jarraituz gero, zerbait pentsatu beharko litzateke, bestela ezingo diogu eutsi", esan dute.

Egoera horren berri bazkideei eman zieten atzo, eguena, egindako urteko batzar nagusian. 60 bat bertaratu ziren, eta haiek ere oso arduratuta geratu ziren entzundakoarekin.

## Ehun urte pasa

Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak 113 urteko ibilbidea egin du saltoki modura. Gaur egun, zazpi langilek dihardute bertan lanean, 5,5eko jardunaldian.

# Haurreskola doan, 2023-2024an

## BABESTUTAKO EDUKIA Matrikulazio epea zabalik

Datorren ikasturtean, doan erabili ahal izango da Haurreskola zerbitzua. Apirilaren 24tik, zabalik da izena emateko epea, maiatzaren 16ra bitartean. 2022-2023an jaiotako umeei zuzendutako deia da, Haurreskolan irailaren 6tik aurrera hasteko.

0-2 urte bitarteko umeei zuzendutako zerbitzua eskaintzen du Haurreskolak, bi taldetan banatuta, 0-1 urtekoendako bata eta, 1-2



Umeak Haurreskolan.

urtekoendako bestea. Ordutegia, berriz, 08:00etatik 14:00ak artekoa da, eta, 3 familiak (edo gehiagok) eskatuz gero, 16:00ak arte zabaltzen dute.

## 19 plaza libre

Gaur egun, 10 umek erabiltzen dute Soraluze Haurreskola, 8 daude 1-2 urtekoen gelan, eta beste 2ak 0-1 urtekoen gelan. Beraz, datorren ikasturterako, 0-1 urtekoen gelarako 8 plaza libre daude eta 1-2 gelarako 11 plaza.

Izena emateko, Haurreskolara bertara joan daiteke -Frontoi kalea, 1, 943 75 13 32- edo online egin (Haurreskolak.eus). Informazio gehiago jaso edo Haurreskola bertatik bertara ezagutu nahi izanez gero, hara joateko gonbidapena egin dute Haurreskolako hezitzaileek.



# Lau alderdi Soraluzerako

Argitaratu dituzte maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetarako behin-behineko hautagai zerrendak, GAOn; Soraluzerako, gaur egun ordezkariak duten alderdiez gainera, PPK ere aurkeztu du hautagaitza

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hautagaitzak behin-behinekoak dira. Maiatzaren 2ra arte dago zuzenketak egiteko epea eta, horien ondorengoak izango dira behin betiko hautagaitzak.

## PP ere bai

Soraluzeko Udalerako aurkeztutako hautagaiei dagokionez, EH Bilduk aurkeztu ditu berritasunik handienak; EAJ-PNVk orain dela lau urteko zerrenda berbera aurkeztu du; PSE-EEri dagokionez, berriz, aurkeztu duen zerrenda "esperientziaduna eta kontinuitista" da, eta, azkenik, PPK ere aurkeztu du zerrenda Soraluzerako, nahiz eta hautagaiak herrikoak ez izan.

## EAJk maiatzaren 6an

Alderdi gehienek publikoki aurkeztuko dituzte hautagaitzak. Horrela egin zuen, esaterako, EH Bildu koalizioak martxoan Plaza Berrian (EH Bilduren zerrenda orduan argitaratu zen). EAJ-PNVk, berriz, maiatzaren 6an, domeka, egingo du aurkezpen publikoa.

## "Modu pedagogikoagoan"

Bestalde, sozialistei dagokionez, Patricia Borinaga alkategaiak



Iñaki Rubio eta Patricia Borinaga.

azpimarratu du "ilusioz, ideia argiz eta azken urteotan kudeaketan lortutako esperientziaz aurkezten" direla udal hauteskundeetara eta "esperientzia hori" dela sozialisten hauteskunde-programaren oinarria. Zentzu horretan, jakinarazi du "laster" argitaratuko dutela programa, "modu pedagogikoagoan, errealistagoan eta gure Udalaren gaitasun ekonomikoarekiko koherenteagoan". Ildo horretan, Borinagak adierazi du "sozialistek zerbait ikasi" badute, "herriarregan bete ezin diren itxaropenak sortzeak frustrazioa" eragiten duela dela. "Eta guk ez dugu frustraziorik sortu nahi. Ez dugu agindu nahi

bete ahal izango dugun ez dakiguna".

## "Modu pedagogikoagoan"

Alderdien hautagaitzak ez ezik, jakinekoak dira, baita ere, maiatzaren 28ko hautes-mahaletan egongo diren herritarren izenak. Atzo, eguena, egin zuten zozketa publikoa eta egunotan jakinaraziko zaie tokatu zaienei, udaltzainen bitartez.

## EAJ-PNVren hautagai zerrenda

Honako herritarrek osatu dute EAJ-PNVren hautagaitza:

1. Iker Aldazabal Basauri.
2. Veronica Galarraga Izagirre.
3. Ramon Gallastegi Aldazabal.
4. Abel Olaizola Alberdi.
5. Nagore Zabala Arrieta.
6. Xabier Alberdi Agirrezabal.
7. Jose Jabier Garmendia Ondarra.
8. Maria Angeles Ariznabarreta Irazabal.
9. Amaia Bedaio Aizpiri.
10. Jose Rafael Varela Iriondo.
11. Maria Carmen Ezenarro Totorikaguena.

## PSE-EEren hautagai zerrenda

Honako herritarrek osatu dute PSE-EEren hautagaitza:

1. Patricia Borinaga Albeniz.
2. Ignacio Rubio Torrientes.
3. Ainhoa De Castro Del Bosque.
4. Francisco Jose Romero Pozo.
5. Jose Fernando Itarte Muñoz.
6. Maria Mercedes Garayoa Ezcaray.
7. Manuel - Litri - Morales Morales.
8. Daniel Ruiz Gutierrez.
9. Maria Concepcion Albeniz Alberdi.
10. Eladio Vaquero Diez.
11. Soledad Del Bosque Zarobe.

(PPren zerrenda Plaentxia.eus atarian ikusgai).

# HAURRENTZAKO MARGO LEHIAKETA

Maiatzak 21, igandea, goizeko 11etatik 13etara, Plaza Zaharrean

## PARTE HARTZEA

Parte hartzaileek beren lanak burutzeko beharrezkoak dituzten tresnak (Margoak, arkatza...) antolakuntzak jarriko ditu. Hala ere, etxetik ekarri nahi dituenak izango du horretarako aukerarik.

## SARIAK

- Maila bakoitzeko 3 lanik onenak sarituko dira
- Parte hartzaile guztiek oparia jasoko dute
- Sariak egunean bertan emango dira, arratsaldeko 5:30ean

### Antolatzaileak:

Udaleko Kultura Batzordea  
Krabellen Pintura Eskola

## MAILAK

1. Haur hezkuntzako ikasleak
2. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila
3. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila
4. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila
5. Bigarren Hezkuntza



**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gertako hartz klinika, punte puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berria zure analizean dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
Mug: 943 42 75 19  
e-mail: elizpe@elizpe.com

Ordelegia:  
Astelehenerik ostiralera  
9:00- 11:00 eta 16:00- 20:00

**Txoko**

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburguesak, ogitortxoak, ogitortxoak, txakurak, pizza, gozaria...

Entzuzkoak egiten dira

Tel: 943 75 17 00

**MENDIZABAL okindegia**  
Ogia - Prentsa - Gozariak

Astelehenerik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**FOGASLER ITURGINTZA**

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**Soraluze Motor**

Mug. 676 556 817 (Asier) Mendiolu ind. 15  
Tel. 943 75 21 38 Sorluze

**IZKGUIRRE Igelberitza**

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igelberitza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

**Kontulan**

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontulan.com

**Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak**  
1910tik orain

Arraindegia, janaria, errapak, etako tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenerik ostiralera:  
08:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunbatak: 08:30 - 13:00

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.501

Katia Guzmán  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia  
odontologia, protesiak, ortodontia,  
odontopediatria, ingiriak, estetikak...  
Zerbitzu radiologiko propioa (3D):  
ekianerria, orto eta tele.



Kalebarrengo lokala zabalik.

# Batzuk bukatu, besteak hasi

Kalebarrengo lokala zaharbertzeko obrak bukatuta daude eta lokal berria estreinatuta; bestalde, abian dira Pascual Churruca eraisteko lanak eta SAPAren lehen eraikina zaharbertzekoak

Kalebarrengo lokalari dagokionez, joan den astean estreinatu zuten.

Hiru erabilera izango ditu, "a priori". Batetik, Ezozibidea Berritzen proiektuko bizilagunen-komunitateei arreta emateko Gertutasun Gela (Open Gela) jarri dute lokalaren lehen solairuko gela batean. Bestetik, aholkularitza sozio-laborala zein Lanbideren

formazio saioak emateko ere erabiliko da, eta azkenik, Zabaltzen-Sartu proiekturako, hau da, Gaztelekuan ematen ari diren emakumeen formazio saioak emateko. Lokalak bi solairu ditu eta elkarren artean eskaileraz zein igogailuz daude lotuta. Hiru erakunderen artean finantzatu dute lokalaren zaharbertzea: Diputazioa (341.926 euro), Jaurlaritza



SAPAKo lanak.



Pascual Churruca eraisteko lanak.

(94.032 euro) eta Soraluzeko Udala (59.944 euro).

## Pascual Churruca eta SAPA

Bestalde, azken asteotan beste bi obra esanguratsu hasi dituzte: Pascual Churruca babes sozialekin lotutakoak eta SAPAko lehen pabiloiari dagozkionak.

Pascual Churruca obrei dagokionez, lantegia eraisteko lanak egiten ari dira. Sei hilabete iraungo dute.

SAPAKo lehen pabiloiari dagokionez, berriz, orain arte lantegiaren fatxadatik zihoazen azpiegiturak (argindarra, telefonia...) lur-azpitik sartzeko lanak egiten ari dira lantegi barruan eta gauza bera egingo dute datorren astean, baina kanpoko aldetik, SAPAren eta Baltegieta 26aren artean zanga bat zabaldu behar dute. Horrek eragina izango du inguruko zirkulazioan.



# Likai, ateak zabalik

NEREA RODRIGUEZ ESTETIZISTAREN PROIEKTU BERRIA

---

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

**ARGAZKIAK:** FERNAN OREGI.

---

Urtarrilean zabaldu zituen ateak Nerea Rodriguezen estetika zentro berriak, izena eta izana berrituta: Likai. Gabolatseko lokalaren espazioa goitik behera berrantolatu eta itxuraldatzearekin batera, zentroaren balioak eta jarduteko modua ere errotik aldatu ditu: "Ondo dago gure larruazala zaintzea baina gure gorputzarekin ondo sentitzeko, barrutik ere ondo egon behar dugu eta horixe da Likain eskaini nahi duguna, estetikari begiratzeko beste modu bat, pertsonak kanpotik zein barrutik zaintzeko zerbitzua". Etapa berrian, Nereak beste lankide bat du ondoan: Karmen Iñurrieta, estetika munduan hogeita hamar urtetik gorako esperientzia duen plazentziatarra.

## **Estetika: depilazioa, aurpegiko tratamenduak...**

Estetikaren arloan, Likaik lehen Lilurak eskaintzen zituen hainbat zerbitzu eskaintzen jarraitzen du, esaterako: depilazioa (orientala, elektrikoa eta laserra), manikura eta pedikura, oinen tratamenduak, espoliazioa, mikroblading... Horrez gain, aurpegirako tratamendu bereziak ere eskaintzen ditu olioak eta mineralak baliatuta. Baita gorputzeko tratamenduak ere: zelulitisa (LPG makina), drenaje

linpatikoa, likidoen erretentzioa edo oinetako nekea bideratutakoak. Baita kirola egin osteko errekupeazioa errazteko erlaxazio masajeak ere (presoterapia makinak...).

Likaik estetika olistikoa lantzen du (gorputza, gogoia eta arima batera) eta garrantzi handia ematen diote erlaxazioari: "Tratamenduak laguntzen du gure momentua hartzen, geure buruarekin konektatzen eta sentitzen den lasaitasuna sekulakoa da. Izan ere, barruko lasaitasuna azalean transmititzen da. Askotan zimurrak estresak eragindakoak izaten dira".

Horrek in batera, aipagarria da produktuen inguruan Nereak erabaki duena: "Erabaki dut nik neuretzat erabiliko ez nituzkeen produktuak eta makinak ez erabiltzea, nahiz eta jendeak eskatu eta errentagarriak izan". Hortaz, Likain produktu naturalak bakarrik erabiltzen dituzte, toxikorikgabeak.

## **Terapia energetikoak eta tailerrak**

Estetika tratamenduekin batera, Likaik "estresa

## **"PERTSONAK KANPOTIK ZEIN BARRUTIK ZAINTEKO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU"**

liberatzera eta pertsona lasaitzera" bideratutako terapia energetikoak ere eskaintzen ditu, nagusiki hiru teknikaren bitartez: Acces barrak, buruko 32 puntu energetikotan eraginez; osteopatia bioenergetikoa, buruan eta gorputzean eraginez; eta biomagnetismoa, birusak eta bakteriak ezabatu eta energia orekatzera bideratuak.

Tailerrei dagokienez, Likaik eskainiko dituen gaiak askotarikoak izango dira: barreterapia, automakillajea, aurpegiko yoga, eskulanak, sendabelarrak, kosmetika naturala... Lokalean gela zabal bat egokitu dute tailerrak egin ahal izateko eta asmoa da hilean tailer bat edo bi eskaintzea, bai soraluzetarrei eta baita kanpoko jendeari ere.

## **Ateak zabalik**

Nerea gustura dago proiektu berriarekin: "Likai urte luzetako lanaren emaitza da. Duela sei urte aita hil zenean hasi nuen prozesu baten amaiera izan da. Formazio eta ahalegin askoren ostean, orain, sentitzen dut eskaini nahi dudana eta eskaintzen dudana bat datozela. Etorri den jendeak ere esan dit lasaitasuna eta bakea transmititzen duela. Soraluzetar guztiak gonbidatzen ditut Likai ezagutzera. Ateak zabalik dauzkagu".

**Tel.: 943 530233**



Nerea eta Karmen Likairen lokala berrituan. FERNAN OREGI



Aurpegiko tratamendua quarzoarekin. F.O.



Depilazioa hari bidez. F.O.



Presoterapia makinarekin. F.O.

# Ospakizuna

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

**ARGAZKIAK:** UBANE MADERA.

Apirilaren 21ean, musulmanen komunitatea kalera atera zen Ramadana amaitu zela ospatzera. Dozenaka herritar batu ziren, lehenik, errezoan eta ondoren, ospakizunean. Marokoar jatorrikoak ziren gehienak, baina baziren beste herrialde batzuetakoak ere, esaterako: sahararrak eta pakistandarrak. Erljio batek batzen ditu denak eta lehen aldiz, plazan, jendaurrean, ospatu dute mundu osoko musulmanentzat hain garrantzitsua den jai-eguna, jakiak eta te gozoa eskainiz herritar guztiei. Noizbait euren herriak utzi eta gurera ailegatu diren pertsonak dira, orain herrikide direnak: Ilham, Mohamed, Amina, Nassir, Tisam, Mustapha... Jan-edana, plaza eta alaitasuna ez dira osagai txarrak elkar hobeto ezagutzeko.







## GUTUNAK

**Mesedeetako egoitzako lan giroa****JULIANA CARRERA, VERONICA TELLO  
ETA LOREA CALLES**

LAB SINDIKATUKO DELEGATUAK

Gutun hau, Sorluzeko Mesedeetako Ama egoitzako langile batzuek idazten dugu. Egoitzan bizi dugun lan egoera konpontzen ez dela ikusita, publiko egitea pentsatu dugu gertatzen ari dena. Zuzendaritzarekin ahaleginak egin ditugu gauzak bideratzeko, aurrerantzean ere gu prest egongo gara konponbidea topatzen ahalegintzeko, baina nekatu gara egoerarekin. Ezin dugu horrela jarraitu. Lehen eta bigarren mailako langileak daude egoitzan. Honen ondorioz, langile batzuek beraiek nahi dituzten lan-txandak aukeratzten dituzte, eta, beste batzuk sobratzen diren txandak egitera kondenatuta gaude. Eskubide laboraletan

oinarrituta dagoela esaten digute, baina pribilegioak dira. Urteetan zehar eraikitako pribilegioen baitako lan-antolaketa dago egoitzan. Bada garaia arazo hau behingoz konpontzeko. Langile batzuek asko sufritzen dihardugu bizi dugun lan egoera negargarriarekin. Langileen arteko lan-giro eskas horrek, gainera, eragina dauka ematen den zerbitzuan. Eta horrela ezin dugu jarraitu, egoera konpondu beharra daukagu ahalik eta azkarren. Langileon osasunagatik, eta, batez ere, gure egoitzako egoiliarrengatik.

**Mozorro lehiaketa dela-eta****SONIA LASKURAIN**

Pasa dira Inauteriak eta fenomeno pasa dugu, baina bada gauza bat, polita dena berez, zatar xamar bihurtu zena: mozorro lehiaketa.

Batetik, hemen azaltzen diren arauak ez direlako bete guztiz: [www.labur.eus/GLnz7](http://www.labur.eus/GLnz7). Horrez gain, herritarren puntuazioak % 40 balio du eta Udalarenak % 60; ez litzateke alderantziz izan beharko? Eta gehiegizkoa irudituz gero, bakoitzak % 50 balio beharko luke. Herritarrok denok bozka dezakegu; zeintzuk dira Udaletik botoa ematen dutenak? Sari banaketan, Udaletik 2 pertsona bakarrik zeuden. Ez da 2 pertsona horien botua herri osoarena baino garrantzitsuagoa izango, ezta? Bestalde, Udalak ipinitako gaiari buruz mozorrotuta zihozten hainbat eta beste hainbat ez. Ez luke puntu gehigarria izan beharko Udalak proposatutakoaz joateak? Izugarritzko garrantzia duela iruditzen zait eta denak ederki mozorrotuta egon arren, irabazleek gaia jarraitu beharko lukete.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)

## KOMIKI TIRA



## HAUSNARKETA

**Irakurzaletasunaz**

Apirilaren 23an Liburuaren nazioarteko eguna izan zen. Baduzu irakurtzeko ohiturarik? Zer irakurtzen duzu?



**JOSUNE UNAMUNO**  
IRAKURZALEA

"Egunero irakurtzen dut lotaratu aurretik. Normalean nobela beltza, poliziakoak... Lankideek gomendatutakoak edo telebistan entzundakoak. Irakurri dudan azkena Mikel Santiagoren *Trilogia de Illumbe* izan da. Gomendagarria oso."



**BEA OREGI**  
IRAKURZALEA

"Asko irakurtzen dut, gauean eta asteburuetan. Batez ere, nobela beltza eta dibulgazioko liburuak. Irakurri dudan azken liburua *Cosas que no se hablan* da. Normalean liburutegian begiratzen dut zer dagoen, bestela liburuzainari eskatzen diot gomendatzeko."



**JUAN PEDRO MURILLO**  
IRAKURZALEA

"Asko irakurtzen dut, gehien bat saiakera: politika, filosofia, historia... Gomendatuko nuke *Mongo Blanco*, Carlos Bardemen eleberririk historikoa. Erreferentziak irratiko podcastetatik jasotzen ditut: La Cafetera, Carne Cruda, Radio Japuta..."



**ROMAN OLAIZOLA**  
IRAKURZALEA

"Egunero irakurtzen dut, gehienbat historiarekin zerikusia duten nobelak eta saiakerak. Irakurtzen dihardut *La vasconia peninsular en las fuentes arabes*. Erreferentziak egunkarietatik jasotzen ditut (Gara, El País, Le Monde...) edo liburuetatik bertatik."

## PUNTUA



**GAIZKA AZKARATE**

**Dena aldatzen da**

¶ Aldatzen da azalekoa eta mina ere aldatzen da..." horrela dio Miren

Amurizak 2017an Berria-ko zutaberako euskaratu zuen kantuak. Iaz Ines Osinagak musikatu zuen eta lau haizetara zabaldu dira hitzak zein doinua (entzungai sarean). Mercedes Sosak kantatzen zuen gaztelaraz eta Julio Numhauserrenak dira hitzak, Pinocheten garaian Suediara erbesteratutako konpositorearenak.

Aldaketa prozesu batean jaiotzen gara, sarri horren kontzientzia izan gabe eta ia beti eraldatze horrek gure bizitzetan izango duen garrantziaz ohartu gabe. Egoera sozio-ekonomiko konkretu batean jaio eta azal kolore jakin baten jabe; zenbat pribilegio?

Familia giroa halakoa eta jasotako baloreak horrelakoak.

Ez da berdina 60ko hamarkadan jaio izana, 90ekoan edo 2000. urtetik aurrera.

Aldaketarako prest egotea garrantzitsua da eta aldaketara eramango gaituen hari mutur horri tira egiteko motibazioa izatea. Haria formaz aldatzen da, baina ez da eteten. Ikusi, ikasi, entzun, onartu, irakurri, hanka sartu... aldatu.

Tarteka gure iritzi berdina ez duen norbait jartzen zaigu mahaiaren beste aldean. Adi entzun, esateko duena aldaketa prozesuan lagungarri izan daiteke.

PUBLIKO BATERA PASEATZERA JOAN ETA  
K GABE GERATZEN  
NEKOA





# Zaletasun bitxiak inguruan

la pertsona guztiek dute zaletasunen bat edo gehiago. Ohikoak dira hobbie asko, kirola egitea, irakurtzea, telebista edo zinema ikustea... Beste batzuk, berriz, ezohikoagoak dira. Arrunta edo arraroa izan, zaletasunen bat izatea komenigarria da osasunerako, adituen arabera.

Testua eta argazkiak: **Ubane Madera Zangitu.**

**A**dituen eta ikerketen arabera, zaletasunen bat izatea ez da entretenimendu soil bat, onura handiak ditu maila mental, emozional eta fisikoan.

Zaletasunak praktikatzeak norbere bizitza aberasten du; batik bat, hura egitea gustatzen zaigun zerbait delako. Horren ondorioz, zaletasunek laguntzen dute gure burmuinak dopamina, endorfina eta serotonina gehiago -zorionaren hormonak- jariatzen. Horrekin batera, bestelako onura mordoa ere badituzte: egunerokotasunetik deskonektatzen laguntzen dute, ditugun talentuak garatzen dituzte eta berriak lantzen lagundu, estresa saihesten laguntzen dute, edo isolamendua, bakardadea zein sedentarismoa gutxitzen laguntzen dute, autoestimua indartzen dute eta baita gure ongizatea ere, besteak beste.

Zenbait zaletasun denbora galera moduan ikusten dituzte askok, baina ez da horrela. Ez dio inporta zein motako zaletasuna den onurak emateko; ez da ezinbestekoa mugimendu fisikoa bultzatzea edo sorkuntzan oinarritutako jarduera izatea. Garrantzitsuena da entretenimendua zein ongizatea ematea norberari.

## **Ohikoak eta ez horren ohikoak**

Denetariko zaletasunak daude; ohikoenak dira irakurtzea, kirola egitea, kozinatzea, dantza egitea, margotzea, telebista edo zinema, jostea... Badira, beste batzuk, berriz, horren arruntak edo ohikoak ez direnak. Halako bost ekarri ditugu, adibide modura.

# Rubiken kuboak, piramideak... ebazten iaioak

Jon Lopezek (Soraluze, 2005) eta Asier Osak (Soraluze, 2011) poltsikoan daramate euren zaletasuna: Rubik kuboak.

Tartetxo bat dutenean, aspertuta daudenean edo beste barik, denbora-pasarako, poltsikotik atera eta burmuina eta atzaparrak abiada bizian jarrita, kuboaren koloreak ahalik eta bizkorren elkarrekin jartzeko jolasean aritzen dira, horixe baita zaletasun horren oinarria: koloreak ahalik eta denborarik laburrenean bateratzea.

“Denbora on bat egin duzula ikusten duzunean, gehiago ikasteko gogoak sartzen zaizu, pixkanaka-pixkanaka gehiago ikasten zoaz eta denbora murrizten. Nire oraingo denbora da 11 segundo”, kontatu du Jon Lopezek. Gauza bera gertatzen zaio Asier Osari: “Errekorra egiten baduzu, gehiago praktikatzen duzu. Nire errekorra da 18 segundo (munduko errekorra da 3,47 segundo)”.

## Youtuben tutorialak

Lopezi 2018an sartu zitzaion kuboaren harra. “Behin, zer egin ez nekiela, kubo bat ikusi eta harekin joan nintzen Ikastolara. Patioan, akaso kasualitatez, bi aurpegi egin nituen, motibatu eta pentsatu nuen: bi aurpegi egin baditzaiket, akaso dena egin dezaket. Etxera joan, kuboak zelan egin Youtuben ikusi eta lortu nuen osorik egitea, 3 minutu eta 30 segundotan. Pixkanaka hobetzen joan nintzen, beste metodo bat ikasten. Hiru-lau hilabeteren ondoren lehen txapelketan parte hartu nuen”. Gaur gaurkoz, Jon



Jon Lopez eta Asier Osa kuboekin.

Lopez, kapaza da kuboak esku bakarrarekin egiteko eta etxean 41 kubo ditu, mota eta kolore askotakoak.

Asier Osa, berriz, ume-umetan hasi zen, piramidearekin. “Txikitan erabiltzen nuen piramideak; behin, kuboak ikusi eta saiatu nintzen hura egiten, baina ezin izan nuen. Youtuben tutoriala bilatu eta lortu nuen kuboak egitea. Sei hilabete daramatzat Rubik kuboarekin”. Orain Asier Osak kuboak, piramideak eta bestelakoak ere egiten ditu eta etxean baditu bost kubo, imandunak barne.

## Txapelketetan

Lopez moduan, Osa ere hasi da txapelketetan parte hartzen. Biek ala biek bat egin dute aurten Zornotzan, Speedcubing Amore Open 2023an, otsailean. Speedcubing lehiaketetan ohi denez, bost bider egin behar

NORBERE DENBORARI  
SEGUNDO BAKARRA  
IRABAZTEA BENETAN DA  
ZAILA

izan zuten kuboak, bost nahasketa diferenterean arabera; bost denboretan artean onena eta txarrena baztertu eta gainerako hiruren artean ateratako mediaren arabera fasez pasatu ziren. Soraluzeko gazteen kasuan, biak pasatu ziren bigarren fasean, 3x3x3 eta Pyramix mailetan; Lopez finalera ere iritsi zen, 2x2 eta Pyramix mailetan, lehen aldiz. Horrez aparte, lehiak ez zebiltzan bitartean, epaile lanak egin zituzten. Esperientzia horrekin, biak oso pozik bueltatu ziren, izan ere, txapelketetan (eta bestela ere bai), norbere denborari segundo bakarra irabaztea benetan da zaila, askotan zorte kontua, zeresanik ez beste norbaiten marka haustea. Gainera, txapelketek lehiatik baino elkar-ezagutzatik eta esperientziatik gehiago dute, gazteek diotenez.

Aurrera begira, atzaparrei eragiten segitzeko asmoa dute, ahal dela, lehiaketetan parte hartzeko ere bai, ikasi eta norbere denborei koskaren bat irabazten segitzeko esperantzarekin.


# Futboleko pinen eta kromoen zale

Futboleko kromoen eta pinen bilduma-egilea da Jabi Hernandez (Eibar, 1976).

Pinei dagokienez, mordoxka bat ditu. Preziatuenak marko barnean gordeta. Ligako historian, noizbait Lehen Mailan egon diren futbol taldeen bilduma da hori. "Guztira, 63 dira eta niri 14 falta zaizkit", esplikatu du. Berriak, historikoak, existitzen ez direnak... denetik du. "Badira hainbat talde desagertu eta gero berriro ere sortu zituztenak, adibidez, Almeriak hiru ekipo izan ditu, Malagak, bi... Horiek guztiak badituzte, adibidez".

## Bertakoak, atzerrikoak...

Pinetako batzuk umetakoak ditu, beste batzuk, berriz, heldutan lortzen joandakoak. Hernandezen helburuetako bat da Lehen Mailako pinen bilduma osatzea, baina oro har, bestelakoen bilduma ere egiten du. Baditu, adibidez, lehen mailakoak, bigarren mailakoak, bigarren mailatik behera Euskadikoak ez diren taldeenak zein Euskadiko taldeenak. Azken horien artean, Sorak atera dituen hiru pinak ditu Hernandezek: zaharrena (sortu zutenekoa-edo), berriena eta 40. urteurrenekoa. Maiteenetako bat du, berriz, Eibar taldearen pin bat, damaskinatu estiloan egindakoa. Bestalde, baditu ere atzerriko ekipoen zein ekipoen lagunarteen pinak: "Realekoena, Soraluzeko Realeko lagun-taldearena, nirearena, -Eibarko Realzaleena- Manix Mandiolaren lagunartearena... Baina gehien Athletik-eko lagunarteenak, Athletikek mordo baititu", dio.



Jabi Hernandez bilduma erakusten.

## 1972tik aurrerako kromoak

Kromoei dagokienez, berriz, Realaren eta Eibarren kromoen bilduma egiten du, Ekialdeko ligakoak, 1972tik gaur egunera arteko kromoena. Albumetan gordeta ditu, denboraldika antolatuta, falta zaizkionak markatuta eta haiendako lekua lagata. "Internet bidez dakit zeintzuk falta zaizkidan. Poliki-poliki lortzen noa; baina aspaldi honetan, apur bat lagata daukat", dio. Esplikatu duenez, "kromoen mundua oso arraroa bihurtu da. Askok bilduma egiten dute negozioa egitearren, ez bilduma egitearren" eta horrek zaildu egiten du zenbait kromo lortzea, prezio altuarengatik. Batzuek milaka euro balio dute. Kromoen balioa, batik bat, ezartzen da kromoaren arrarotasun mailaren arabera. Adibidez, 1982-83an Lopez

"ORAIN ASKOK  
KROMOEN BILDUMA  
EGITEN DUTE NEGOZIOA  
EGITEARREN"

Ufarteren kromo bat akats batekin atera zuten, Lopez Ufarte barik, bakarrik Lopez ipintzen zuen eta oso-oso kromo gutxi atera zituzten, beraz, halako batek, bildumazale amorratu batendako balio handia dauka. Ni, berriz, Lopez Ufarteren kromo aruntarekin konformatzen naiz. Nire albumean ez dago eta ez da egongo milaka euro balio duen kromorik, ez dudalako hori ordaindu nahi", esplikatu du.

Akaso milaka euroko balioa dutenak ez, baina berari zuzenean sinatutako kromok baditu Hernandezek, Diegorena, adibidez. "Orain pare bat urte ezagutu nuen. Eibarko peñara etorri zen, Esnaolaren laguna da". Boronaten sinadura ere badu, Salva Iriarterena, Zamorarena... Eta Eibarko jokalaririk askorenak.

Pinen zein kromoen bildumak osatzen segitzeko asmoa dauka Hernandezek, zoratu barik, baina eten barik. Kromoak Bilboko lagun batek lortzen dizkio azken boladan eta pinak, berriz, bestelako lagun batzuek.



# Zortzi urte puzzleak egiten

Mikel Cruz (Ainzon, Zaragoza, 1952) puzzle-egile zalea da. Zortzi urte daramatza zaletasun horrekin. Egin duen puzzlerik txikiena 1.000 piezakoa izan da. Orain, berriz, 9.000koa egiten dihardu.

## "Telebistarik ez"

Cruzek beti izan ditu gustuko trebetasun-lanak, adibidez, berez konponezinak ziren aparailu elektronikoak konpontzea, eskuz egindako piezak baliatuta askotan, kaseteak, bideo-aparailuak, telebistak... Eskulanetarako zaletasunetik abiatuta, behin, gustatu zitzaion puzzle bat ikusi zuen Interneten eta probatzea pentsatu zuen. "Telebistarik ez dut ikusten. Oso entretenigarria pentsatu zitzaidan puzzlea egiteko piezak sailkatzea eta puzzlea egitea, eta gero, puzzlea amaituta ikusteak gozamina ematen dizu". Horrela hasi zen puzzlegintzan, denborarekin, puzzleen tamaina handituz. "Iaz, Velazquezen *Las Hilanderas* 8.000 piezako puzzlea egin nuen eta oraingoak, El Boscoren *El Jardín de las Delicias* margolanaren puzzleak 9.000 pieza ditu".

## Egunean bospasei ordu

Gaur egun, Cruz erretiratuta dago eta egunean, guztira, bospasei ordu eskaintzen dizkio puzzleak egiteari, goizean hiru bat eta arratsaldean beste horrenbeste. "Denbora hori behar da. Gainera, 70 urte ditut



Mikel Cruz etxe azpiko lokalean, El Jardín de las Delicias puzzlea muntatzen.

eta nire burmuinaren bizkortasunak ez du zerikusirik gazte batek duenarekin", esplikatu du. *Las Hilanderas*, adibidez, iazko urtarrilaren amaieran hasi eta urriaren 10ean bukatu zuen. "Uztaila, abuztua eta Aste Santua nire herrian pasatzen ditudala kontuan hartuta". *El jardín de las Delicias*, berriz, urtarrilaren amaieran hasi zuen eta espero du urria-azaroan bukatzea; etxe azpiko lokalean egiten ditu puzzleak eta lekua libre behar du Gabonetarako, bertan egiten baititu familiak Gabonetako jatorduak.

## Oraingoa azkena

Cruzek hiruzpalau mahai-tena erabiltzen ditu puzzleak egiteko. Inguru guztia dauka piezaz beteta, koloreen eta formen arabera sailkatuta.

CRUZK 15 URTEAN 8 BAT PUZZLE EGIN DITU ETA ORAINGOA AZKENA IZANGO DA

"Lehenengo periferiako piezak aukeratzen ditut, gero gainerakoak", esplikatu du. Puzzleen dimentsioak ere kontuan hartzen ditu, piezen arteko distantziak kalkulatu eta bakoitza bere lekuan ipintzeko. Aukera duenean, berriz, puzzlearen anplazio digitalak ere erabiltzen ditu puzzlea egiteko. Kontatu duenez, 56.000 piezako puzzleak ere badaude, *Munduari bira 80 Egunean*, adibidez. "Baina halakoak egitea oso zaila da, batik bat eskatzen duen espazioarengatik".

Cruzek 15 urtean zortzi bat puzzle egin ditu eta oraingoa azkena izango da. "Kasu batzuetan, oparitu egiten ditut, beste batzuk Ainzongo eta Soraluzeko etxeetan eta hemen, lokalean ditut zintzilik. Baina dagoeneko ez dut paretarik puzzle gehiagorako. Itsasontzien maketak egitea probatu nahi dut, Jose Mari Igartuak bezala, bere tailerreko erremintak ere eskaini dizkit, beraz... Argi dudana da telebistarik ez dudala ikusiko".

## Zailtasunen gaineratik, postal bilduma-egile

Ioritz Aizpitarteri (Zarautz, 1983) betidanik gustatu izan zaio idaztea, udalekuetara-eta joaten zen garaitik. Orduantxe hasi zen lagunek elkarri idazten zizkioten gutunak eta postalak gordetzen.

Sasoi batean, ohikoa zen ohitura hori askoren artean, are gehiago postalen kasuan, askok egiten baitzuten postalen bilduma. Baina gaur egungo mundu digitalizatuan, gutxiengoak eutsi dio zaletasun horri. Ioritz Aizpitarteri da azken horietako bat. 135 postal edo gehiago ditu. Umetako eta gaztetako sasoiak bai, baina baita gaur egungoak ere, eta gainera, ez du errepikatutako postalik .

### Idatzitakoak gustuko

Bere bilduman denetarikoa postalak ditu: paisaiak, animalienak, antzinakoak, monumentuenak, loteriarenak... Urrunenen artean ditu Montrealgo bat, Patagoniakoak, Lousianakoa, Mexikokoa... Gertukoaren artean, berriz, bere jaioterriko, Zarauzko, antzinako argazkien hainbat postal ditu, 1833-1937. urte bitarteko erretratuenak.

Guztiak ere klasifikadore batean ditu gordeta oraingoz, bilduma antolatuta eta kutxa batean gordetzeko zain.

Postaletako asko berak erositakoak dira, beste batzuk berari bidalitakoak eta beste batzuk kanpotik ekarri eta zuzenean berari emandakoak. Gustukoak ditu ekarri edo bidaltzen dizkioten postalak.



Ioritz Aizpitarteri bildumako hainbat postal erakusten.

Eta horien artean idatzitakoak. "Bidaltzea edo ekartzea, biak ditut gustuko. Baina orain, normalean, jendeak ez du idazten eta gainera, bidaltzea ere ez da erraza izaten askotan, beraz, errazagoa da jendeak ekarri eta ematea, baina idatzi barik. Horiek ere egiten dute ilusioa, noski, baina ez da gauza bera", dio berak. Ilusioa ilusio, bidalitako eta ekarritako postal guztien kasuan, apuntatu egiten du zeinek eta nondik ekarri dion, origarri modura.

### Familiakoak eta lagunena

Postal bildumatik, berriz, gehien maite ditu familiak bidalitakoak. Asko ditu, adibidez, amonaren eskutik jasotakoak, Noruegara joan zen lehengusu batenak... Eta estimu handia die, besteak

POSTALEN ARTEAN,  
GUSTUKOEN DITU  
EKARTZEN EDO  
BIDALTZEN DIZKIOTENAK

beste, Portugalen umetan egon zen garaiko postal bati, Gareseko umetako beste bati zein Madrilen ikasten dabilen lagun batek Edinburgotik bidalitako bati. Azken batean, postalak badira ere bizipenen origarri eta lekuen antzinako itxuraren zaindaria.

Ioritz Aizpitarterek aitortu du berak ere aspaldian ez duela postalik idazten. Ezkondu zeneko urtean idatzi zituen azkenak, eztei-bidaian. Anekdotak modura, horietako bat familiari idatzi zion, baina "gu iritsi ginen postala baino lehenago", kontatu du.

### "Akordatzeko bazara, ekarri"

Azkenik, bilduman gehien Landetako eta Italiako postalak ditu. Berak, berriz, bera egonda ez dagoen lekuetakoak lortu nahi ditu, haiek zelakoak diren ikusteko. Edozein kasutan, oso eskertuta hartzen ditu ematen dizkioten postal guztiak, "postal guztiak balio dute; akordatzeko bazara, ba ekarri eta bestela ez da ezer pasatzen".

# Hiru zaletasun bateratuta

Maite Lopezek (Ondarroa, 1979) hiru zaletasun uzartu ditu panpinen bueltan: argazkilaritza, joskintza eta panpinak eurak.

16 urte zituenean josten ikasi zuen, jaioterrian. Laga egin zion unibertsitatera joan zenean. Baina Sorraluzen bizi zela, atzera ere ekin zion, Ondarroako patchwork talde baten bitartez. Harrezkero, jaioterrian zein bizitokian praktikatu du joskintza, batik bat zaletasun modura, eta denboralditxo batez, baita artisau modura ere.

## Argazkilaritza

2009an, berriz, argazkilaritzarekin ere zaletu zen. Hortik ezagutu zituen panpina berezi batzuk, Blytheak. "Argazkiak ateratzen zituen lagun batek Blythe panpinak ezagutu zituen, argazkilari ezagun batek haiei buruzko liburu bat egin zuelako. Laguna hasi zen panpinak erabiltzen modelo modura. Nik ere argazki-kamera berri bat nuen, eta gauza bera egiten hasi nintzen. 2009an eskuratu nuen lehen Blythea".

## Blythe panpinak

Japonian izugarri modan dauden panpinak dira Blytheak. 1972an sortuta, jatorri amerikarra dute eta mundu oso bat inguruan. Haien zaleek kustomizatu egiten dituzte, aurpegiak, ilea... aldatuz, eta, osagarri hornitu, jantziak, bitxiak, altzariak, dekorazioa... Blythe



Maite Lopez Blythe, Paola Reina eta Nancy panpinekin.

panpinen beste ezaugarri batzuk dira begiak mugitu eta kolorez aldatzen zaizkiela, eta buru-handiak dituztela. Halako berri batek 150-200 bat euro balio ditu, kustomizatuek 400 eurotik gora, eta 70eko hamarkadako original batek 1.000 eurotik gora. "Jendeak lixatu, limatu eta forma aldatzen die aurpegiei, adibidez. Hau artea bezalakoa da. Badaude pertsona batzuk ezagunak direnak eta haiek egindako kustomizazioek diru asko balio dute; adibidez, Vanilla Dolly, Andreea Mariuka, Tati 68... Nire Blytheak, berriz, lagunek kustomizatu zituzten. Hala ere, konturatu barik dirua gastatzen hasten zara Blytheekin. Josten banekienez, arropak ere egiten nizkien eta gero argazkiak atera,

ARGAZKILARITZARAKO  
MODELO BEZALA  
ERABILTZEKO EROSI  
ZUEN LEHEN BLYTHE-A

paisaietan, batik bat, loredun fondoekin".

Lopezek lau Blythe ditu; ez dira originalak eta badira 9 urte-edo ez dela haiekin ibiltzen, baina estimu handiarekin ditu gordeta, bere lagunek kustomizatutakoak direlako. Dio orain ez lukeela Blythe berririk erosiko, baina aitortu du, bilduma-zale ikuspuntutik, gustatuko litzaiokeela jatorrizko Blythe bat izatea, 1970eko hamarkadakoa.

## Paola Reina, Nancy...

Blytherik ez, baina beste panpina batzuk eskuratzen segitu du Lopezek, Paola Reinak, Nancy bat... Azken hori, adibidez, orain dela bost urte erosi zuen, bigarren eskukoa. Berri batek 100 bat euro kosta dezakeela esan du. Panpina errealistak gustatzen zaizkio Lopezi, ume itxurakoak ez. Eta arropak egiten dizkie. Berak, ama Mari Terek eta amaginarreba Margak. "Horiek dira zona punto. Kolaboratu egiten dute jantziak egiten, puntuzkoak. Nik bestelakoak", esan du.





Bikoteak osatzeko zozketa egin zuten Gaztetxean, joan den astean.

# 17 bikote pilota txapelketan

laz baino bi bikote gehiagok parte hartuko dute aurten Asierren eta Iñakiren omenezko pilota txapelketan

Txapelketan parte hartuko duten bikoteak zozketa bidez antolatu ondoren, Asier eta Iñakiren omenezko XXII. pilota txapelketa maiatzean hasiko da eta uztailaren 22an amaitu. Final-aurrekoak uztailaren 8an

jokatuko dira, San Andresko jaietan, 18:00etan.

### Aldaketak

Pilota txapelketako lehenengo fasea ligaxka modura jokatuko dute, urtero moduan. Baina

aurten, bigaren fasean aldaketak egin dituztela jakinarazi dute. Antolatzaileek kontatutakoaren arabera, final laurdenetako ligaxka egin beharrean, final zortzirenetatik hasiko dira. Hori horrela, bigarrenengo faseatik finalera arteko partidak partida bakarrera jokatuko dituzte, kanporaketa bitartez. Finalari dagokionez, berriz, kokalekua erabakitzeke dute oraindik, baina esan dute partidak goizean jokatuko direla eta ondoren, Gaztetxean bazkaria egingo dutela elkarrekin.

Txapelketako kamisetari dagokionez, berriz, jendeak tabernetan apuntatutakoa jaso eta kamisetak heltzen direnean banatzeko egunak ipiniko dituzte antolatzaileek; halaber, dirua kamiseta ematean jasoko dute.

### Murala egiteko eskaria

Bestalde, jakinarazi dute, aurten ere herriko artista batek egingo dituela sarirako oroigarriak. Eta iaz moduan, aurten ere, eskatuko dutela baimena San Andresko frontis atzean murala egiteko.

## Boxeo jaialdi borobila

Boxeo gustuko duten ikusleak ez ezik, Soraboxeko eta beste klubetako boxeolarien zale eta senitarteko mordoak elkartu zen Ixa Rodriguezek antolatutako boxeo jaialdian, Araneko frontoian. Kantuekin eta banderekin animatu zituzten ringean borrokatu ziren lagunak eta borrokaldi ikusgarriez aparte, giro ederra izan zen jaialdian.



## AGENDA

**ZINEMA Irati**

Paul Urkijoren 'Irati' filma. 'Irati' fantasiarazko eta abenturazko film historikoa da. Istorio honek konkistaz eta erlijioen arteko talkaz hitz egiten du, baina aldi berean, euskal iruditeria herrikoia eta euskal mitologiak elikatzen dute istorioa. Euskaraz orain arteko ikusiena da 155.000 ikusle baino gehiagorekin. **Maiatzak 3, eguaztena, 20:00etan.**

**PINTURA Leku batean**

Ricardo Azkargorta margolari bergararraren lanak ikusi ahalko dira Gabolatseko galerian. "Atmosferak, landare-formak, egitura geometrikoak, koadroa barrurantz hazten da, espazioa ordenatzeko beharra dago". **Maiatzaren 5ean inaugurazioa, Oreka Art Galerian, 19:00etan. Erakusketa ikusgai maiatzaren 31ra bitartean.**

**MUSIKA Txalainak**

Txalainak Errekaldeko hirukotea da, Hertzainak taldearen kantak akustikoan moldatzen dituenak, kantak gogoratzen ondo pasatzeko asmo bakarrarekin. **Maiatzak 12, Gaztetxe aurrean, 20:00etan.**

**ANTZERKIA Nire Zigilua. Homofobiaren (beste) istorio bat**

Lorik egin ezinda dagoen nerabeak, genero binarismoak eta sexu/genero dikotomiak sortzen duen botere estrukturala agerian jarriko du, gau batetako pentsamenduen bilakaeraz. "- Eta zuk? Zer egiten duzu?" "-Yo no lo entiendo pero lo respeto". **Maiatzak 13, zapatua, 19:00etan.**

**PINTURA Tailerra**

'Nola margotu oleo-kuadro bat 90 minutuan?' tailerra Esteban Oroz margolari eibartarrak gidatuta (gazteleraz). Aire zabalean eta olioarekin koadro bat nola margotu ikasteko aukera izango da. **Maiatzak 18, Tolarekua aretoan (kiroldegian), 18:30ean.**

**BERTSOLARITZA Bertso bazkaria**

Bertso bazkaria Nerea Ibarzabal eta Julio Soto bertsolariekin. Menua: Sarrerakoak, entsalada, eta labean erretako saheskia edo barazki lasaina, postrea, kafea eta kopa. Prezioa: 25 . Izen-ematea: Iratxo goxodendan eta online (Plaentxia.eus). **Ekainak 3, Lagun Maitea elkartearen, 14:30ean.**



Gaizka, Patxi eta Ane euskarazko liburu artean, liburutegiaren sarreran.

# Probatu duzu euskarazkoa?

'Irakurri eta gozatu' kanpainak euskarazko irakurzaletasuna sustatu nahi du eta besteak beste, euskarazko liburuak erdi prezioan erosteko aukera eskaintzen du maiatzaren 19ra bitartean.

Apirilaren 23an ospatu zen Liburuaren Nazioarteko Egunaren aitzakian, "Irakurri eta Gozatu" izeneko kanpaina abiatu dute liburutegiak, Udalak eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak.

Kanpainak euskaraz irakurtzera gonbidatzen ditu herritarrak eta proposamena simplea da: "aukeratu liburua, zoaz liburutegira eta hartu maileguan edo nahiago baduzu, erosi liburua herriko edozein liburutegian %50

merkeago. Ondoren, irakurri eta gozatu". Kanpaina maiatzaren 19ra arte luzatuko da.

Hala, egunotan, liburutegirako sarreran euskarazko liburu sorta dago zintzilik, euskarazko liburuak bistaratu irakurleak euskaraz irakurtzera animatzeko helburuarekin.

## Gomendioen zerrenda

Aipatutakoez gain, euskarazko liburu gomendagarrien

zerrenda ere prestatu dute, helduentzako, gazteentzako eta haurrentzako gomendatutako lanekin. liburutegian bertan edo interneten kontsulta daitekeena. Helduentzako liburu artean ondorengoak nabarmendu litezke: *Berriz zentauro* Katixa Agirre, *Bizipox* Karlos Linazisoro, *Nire minaren etxean* Iñigo Ansorregi, *Ama Eme Ume* Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma, *Sendabelarrekin dakitena* Garbiñe Larrea. Gazteentzako artean, berriz: *Ewok bat lorategian* Pedro Ramos, *Lima* Miren Gorrotxategi, *Sex-sua* Karlos Aretxabaleta. Haurrentzako artean: *Badakit baratzea lantzen* Elena Odriozola, *Nur eta zirku miragarria* Toti Martinez de Lezea, *Zergatik hiltzen dira gauzak?* Cristine Pym eta Katie Daynes. Liburu hauek eta zerrenda osatzen duten beste hainbat liburutegian daude mailegatzeko aukeran.

## Bi hitzordu literario maiatzean

Kanpainaren barruan bi hitzordu antolatu dituzte: Bata, umeei zuzendutako ipuin kontaketa: Amona Tomaxaren abenturak; eta bestea, irakurleen klubak Bar Gloria eleberriaren gainean jarduteko Nerea Ibarzabal idazlearekin antolatu duen saioa.

**EUSKARAZKO  
LIBURUAK %50  
MERKEAGO EROS  
LITEZKE HERRIKO  
LIBURUDENDETAN**



**Irakurleen kluba martxan**

Duela bost urtetik abian da euskarazko irakurleen kluba herrian eta, gaur egun, hamahiru herritar daude bertan izena emanda. Aurten, Nerea Loiola idazle debatarra da taldea dinamizatzen duena. Bi hilabete behin elkartzen dira, astelehenetan, ordu eta erdiz, aurrez irakurri duten liburuaren inguruan jardutera. Lantzean behin, liburuaren egilea ere gonbidatzen dute berarekin zuzenean berba egiteko.

**Hitzorduak****IPUIN KONTAKETA Amona Tomaxaren abenturak**

4-7 urte bitarteko haurrentzat. Ixabel Agirresarobe eta Mattin. *Maiatzak 10, erakusketa gelan, 18:00etan.*

**IRAKURLE KLUBA Bar Gloria**


Nerea Ibarzabal idazlea etorriko da Bar Gloria liburuaz berba egitera. *Maiatzaren 22an, 18:00etan, udaletxean.*

**Testigantzak**

**ANE ANSOLA**  
IRAKURLEA

**"Aurten hasi naiz euskarazko irakurle klubean"**


"Aurten hasi naiz euskarazko irakurle klubean eta euskaraz gehiago irakurtzen. Dinamizatzailearen gomendioak jasotzeak asko laguntzen dit eta jendearekin komentatu ahal izatea aberasgarria da. Gaël Fayeren *Ene herri txikia* irakurri dut eta gustatu zait."



**PATXI OSA**  
IRAKURLEA

**"Lehen gutxiago irakurtzen nuen euskaraz"**

"Bi urte dira irakurle klubean nagoela. Lehen gutxiago irakurtzen nuen euskaraz eta horrek lagundu dit. Gustatzen zaizkit biografia fikzionatuak eta gustora irakurri nuen Rodriguezen *Eraikuntzarako materialak* eta Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*".



**GAIZKA AZKARATE**  
IRAKURLEA

**"Erreferentzia asko lanean jasotzen ditut eta familiaratik"**

"Busean irakurtzen dut egunero, lanerako bidean. Nik euskal kultura munduan lan egiten dut eta euskarazko erreferentzia asko bertan jasotzen ditut, familiaratik ere bai. Bere garaian, Uxue Alberdiren *Kontrako ezta* mugarri txiki bat izan zen nire irakurzaletasunean."



**SARA GOENAGA**  
LIBURU SALTZAILEA

**"Jendea fijatu da %50eko deskontuarekin"**

"Jendea fijatu da %50eko deskontuarekin. Galdetu digute ea nahi den liburu eska daitekeen, eta bai. Dendan baditugu euskarazko batzuk: Ibon Martinen *Tulipen dantza*, Karlos Aretxabaletaren *Sex Sua*, Alaine Agirreren *Nora joan da aitona?*, umedakoak...".

# "Alemaniarrek ahal duten dena ematen dute"

MARIA ZARET SANCHA SORALUZETIK BALINGEN-ERA

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: MARIA ZARET SANCHA

---

Maria Zaret Sancha Muñoz (Soraluze, 1991) Alemanian bizi da 2011z gerotik, Dennis senarrarekin eta Alba eta Valeria alabekin. Balingenen bizi dira, Baden Wurtemberg estatuan, hegoaldean. Ile-apaintzailea da Sancha, baina azken bi urteotan amatasun baimenarekin dago (Alemanian baimenak hiru urtekoak dira), Valeria alabarengatik.

## **Zelan iritsi zinen Alemaniara?**

Eibarko Zuloaga Institutuan batxilergoa egiten ari nintzela, Balingen eskolakoekin elkartrukea egin genuen eta hor ezagutu nuen nire senarra. 17 urte zituen eta orain 31; nik, berriz, 18 urte nituen eta orain 32.

## **20 urterekin joan zinen hara, gazte-gazte...**

Bai; hasieran messenger, skype... bitartez ibili ginen. Soraluzera ere etortzen zen Dennis, oporretan. Horrela egon ginen urtebete, eta gero ni hara joan nintzen.

## **Han egin dituzu ikasketak?**

Bai. Lehenengo hizkuntza ikasi nuen eta gero ile-apaintzaile

modulua. Hemen hiru urte irauten dute moduluek. Gainera, hemen oso eskuzabalak dira eta propina handi-handiak ematen dizkidate ile-apaindegian.

## **Zer duzu hortik gustukoan?**

Hemengo hezkuntza sistema, batik bat. Gauza asko irakasten dizkiete umei. Haurreskolan hasten dira ingelesarekin, 8 urterekin, berriz, frantsesarekin... Haurreskolan 3tik 6 urtera arte daude, eta gero eskolan. Bestalde, hemen, ikastetxeen gelak ikasturteen arabera antolatzen dira eta ez jaiotza-urtearen arabera.

Adibidez, abenduan jaiotako bat eta hurrengo urteko urtarrilean jaiotako beste bat elkarrekin daude gelan. Gustuko dut, baita ere, jendearen antolaketa gaitasuna, lanerako oso ondo dago, adibidez. Hori bai, faltan igartzen ditut, baita ere, jaiak eta lagunekin poteoa. Hemen ez dago poteorik, kuadrillarik eta halakorik. Ni erretirutzen naizenean horra bueltatuko naiz.

## **Bai, ala?**

Noski. Hemen ez naiz geratu behar. Bizitza bizitzeko nahiago

hor, poteora, hondartzara, lagunekin... Han hobeto bizi gara. Gainera, hemengo klima...

## **Zein eguraldi duzue hori?**

Ba orain, adibidez, (eguerdia) 7 gradu ditugu eta neguan elur asko egiten du. Iaz, berriz, udan bero handia egin zuen, baina hemen ez daude horretarako prestatuta. Dena den, bai, hau oso polita da, oso berdea. Ni hegoaldean bizi naiz, mendi ugari daude hemen, Soraluzen bezala. Selva Negratik ordubete ingurura bizi naiz.

## **Baina gustura zaude hor, ala?**


Bai. Ohitu naiz. Lagunak ere baditut, lanean egindakoak eta alaben haurreskolan egindakoak. Nik berba asko egiten dudanez... (barre).

## **Zelako bizimodua duzue hor?**

Lasaiagoa. Goizago bizi dira, 12:00etan bazkaldu eta 19:00etan afaldu. Lana eta etxea. Bestalde, etxean gauza asko egiten dira. Normalean, etxe handiak dituzte eta lagunak gonbidatzen dituzte barbakoak egitera... Askok 21 urterekin karrera amaituta dute eta lanean hasten dira. Baina



Maria Zaret Sancha bere familiarekin.



Alba alaba basoan paseatzen.

lehenengo dirua irabazi eta bizitza bizi nahi dute, 38 urterekin-edo izaten dute lehen umea eta gero euren etxea eraikitzen dute.

**Dena den, Alemania eder askoa da, ezta?**

Oso. Ez dut astirik izan ezagutzeko. Oso gazte etorri nintzen eta hizkuntza ikasi eta familia izan dut, ez dut aukerarik izan ezagutzeko.

**Zer da gutxien gustatzen zaizuna?**

Den-dena planifikatu behar dutela aldez aurretik. Adibidez, nire amaginarrebak astelehenetik daki domekan zer kozinatuko duen.

**Zelako jana dago hor?**

Ona, haragijalea bazara, ona. Frutek eta barazkiek, berriz, ez dute apenas zaporerik.

**Azken urteotan, Alemaniara etorkin ugari joan dira; zelakoa da elkarbizitza?**

**"HEMEN GAUZA ASKO ETXEETAN EGITEN DIRA, LAGUNAK ETXERA DATOZ... EZ DAGO POTEORIK-ETA"**

Oso ona, esan beharra daukat. Ukrainako eta Nigeriako etorkin mordoak hartu dituzte.


Alemaniarrek, euren Historiarengatik oso izen txarra dute, baina ahal duten laguntasun dena ematen dute. Hasieran hotzak dira, baina behin irekitzen direnean, dena ematen dute eta zuzen-zuzenak dira, gauzak garbi eta zuzenean esaten dituzte.

**Etortzen zara bisitan?**

Ba koronabirusarekin hiru urtean joan barik egon naiz, baina apirilaren 10eko astean egon naiz hor. Herria betiko moduan ikusi dut, oso ondo eta hori gustuko dut. Umeei ere gustatu zaie, baina Albak euskara ulertzen ez duenez, alemaneraz berbetan ibili zen (barre).

**Beste zerbait nahi baduzu gaineratu...**

Aurten, nire herrian jai berezi bat dago, Green Capital, Gasteizen ere izan zen. Maiatzetik irailera egingo da jaialdia eta diru asko inbertitu dute horretarako, lore eta parke asko jarri dituzte, dena polit-polit. Beraz, etorri nahi duenak, etor dadila!



Alaba nagusia zelaian korrika.



Familia-erretratua.



## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Leire Laskurain**  
Apirilaren 22an 4 urte! Zorionak Leire! Etxekoan partez.



**Enaitz Quilez**  
Apirilaren 27an 7 urte. Zorionak maitia etxekoan partez.



**Telmo Duran Lamariano**  
Apirilaren 10ean urte 1. Zorionak txapeldun! Urtetxo bat!



**Joanes Borinaga Lekue**  
Apirilaren 12an 2 urte. Zorionak familiakoan partez!



**Aitxitza Karlos, Irati eta Iosune**  
Apirilaren 1, 7 eta 18an, 67, 8 eta 41 urte. Muxu handi bat etxeko guztien partez!!



**Olimpia Giordia**  
Arizaga Giordia familia, Ribera de Dueroan, Olimpia amonaren 90 urte ospatzen. Zorionak amama!

### JAIOBERRIAK



**Elene Atxotegi Arruabarrena**  
Apirilaren 9an jaio zen.

### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

#### Hildakoak

Soledad Arcelus Esnaola  
Lucia Etxabe Zubizarreta  
Tomas Ramos Muñoz

#### Jaiotakoak

Elene Atxotegi Arruabarrena  
Budda Aali Ahmed

**bertako**  
igogailuak | ascensores  
Benetako orotariko zerbitzuak  
**100€-tik /hileko**

**Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzeta**  
+2.000 bezeroak gagan dute konfiantza  
943 903 450 bertako.eus

**administradores**  
Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas  
Escuela de Formación Administrativa  
Escuela de Formación de Gestión

**ROSA Mª PINTADO**

*Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Erioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**


Gure komunitateko bileren ostean iritzi desberdinak izaten ditugu aktan jaso beharreko informazioari dagokionez. Jakin nahi nuke aktan zein informazio jaso behar den.

Etxejabeen batzarretan gai asko irteten dira, eta akta jasotzean etxejabe batzuek nahi izaten dute beraiek esandakoak eta egindako ekarpenak aktan jasotzea. Legeak dioena da aktan soilik jaso behar direla batzarrean lortutako akordioak. Akta ez da esandako guztia erreproduzitzeko dokumentua, baizik eta, batzarrean adostutakoak jasotzeko.

**ONDORIOA: Akta idaztea idazkariaren edo administratzailearen zeregina da eta juntari dagokio ziurtatzea bertan egoki jaso direla batzarrean hartutako erabakiak.**

**GOAR** AHOLKULARI KOLABORATZAILEA  
San Bartolome, 2

## ESKELAK

<b>ESKELA</b>	
<h2>Lucia Etxabe Zubizarreta</h2> 	
<p>2023ko apirilaren 13an hil zen, 96 urte zituela.</p>	
<p>Bizitzari egin diozu jantzirik ederrena, elkarrekin mantenduko gaituen haria izango da oroimena.</p>	
<p>Etxekoak</p>	

## OHARRAK

**1983an jaiotakoen kintada**

40 urte. Heldu zaigula guri ere zenbaki borobil hori! Datorren ekainaren 3an, Txurrukan, bazkari bat egingo dogu 1983an jaiotakook. Urte horretan jaiotakoa baldin bazara, animatu eta etorri! Izena emateko telefono hauetako batera deitu: 649 21 69 23 (Eider); 686 775 575 (Naiara)

**Autobusa Herri Urratsera**

Irteera 09:10ean Soraluzetik eta buelta 19:00etan Senperen irtenda. Prezioa: 12 euro. Izen-ematea: Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartean 605706086 / pilpilean@pilpilean.eus.

**Irukurutzeta Eguna**

Maiatzaren 7an, salda eta txorixoa banatuko dituzte Irukurutzetan.

# AURREMATRIKULA

## MAIATZAREN

### 8tik 26ra



IKASTETXE PUBLIKO DOAKOIA



UNI EIBAR ERMUA



EUSKO INJURJARITZA GOBERNUO NASCO  
HEGOKITZAILEA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# F

# M

# A

# I



EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK     EREI MAILAKO ZIKLOAK



NAZIOARTEKO MERKATARITZA

GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA JARDUERAK



ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA  
 INFORMAZIOAREN  
 TEKNOLOGIEN  
 INGURUNEETAN



ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA





SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



**www.uni.eus**

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idazkaritza@uni.eus | @uni.eus  

## ERDI MAILA

- ▢ Mekanizazioa
- ▢ Mantentze-lan elektromekanikoa

## GOI MAILA

- ▢ Fabrikazio mekanikoko diseinua
- ▢ Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- ▢ Mekatronika industriala

## ESPEZIALIZAZIOAK

- ▢ Fabrikazio aditiboa
- ▢ Errendimendu handiko mekanizazioa
- ▢ Makinen doitze eta prestakuntza aurreratua

## ATE IREKIAK

Maiatzak 6  
Maiatzak 17



**GORDE TOKIA!**



943 74 41 32

zikloak@imh.eus

www.imh.eus/zikloak

# MUNDUKO POSTREAK

## SUKALDARITZA TAILERRA

### MARQUESA DE CHOCOLATE



MAIATZAK 10, EGUAZTENA  
DAMARYS OJEDA (VENEZUELA)

### AMARGILLOS



MAIATZAK 17, EGUAZTENA  
CRISTINA CUENCA (VALLADOLID)

### BOLO DE MACAXEIRA



MAIATZAK 24, EGUAZTENA  
GEYNE DOS SANTOS (BRASIL)

### APFELSTRUDEL



MAIATZAK 31, EGUAZTENA  
DAVID LINDEMANN (ALEMANIA)

**GAZTELEKUAN**  
17:00-19:00  
PREZIOA: 2€

**IZEN EMATEA: MAIATZAK 8**  
PIL-PILEAN 943 75 13 04  
ARRATE 609 287 739

**NAHI BESTE SAIOTAN EMAN**  
DAITEKE IZENA

**HERRIALDEEN KULTURARTEKOTASUNA**  
DASTATU, GOZATU ETA  
EZAGUTZEKO AUKERAI

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK

